


KAIXO!,

Talde bat gara eta Nafarroako Gobernuan dihardugu lanean, Haurren Laguntza eta Sustapenari buruzko Foru Legea hobetu eta Parlamentura eraman nahirik.

Proposatzen dizugu zure borondatez eta izenik eman gabe etor zaitezene parte hartzeko prozesu honetara, zeinaren xedea baita **adingabeen eta familien behar eta iradokizunak legean eta haren ekintzetan sartzea.**



ZERTARAKO BALIO DU LEGE HONEK?

Haurrak, gazteak eta haien familiak babestu eta laguntzeko, eta haien eskubideak aitortzeko.

ERRONKA da zuk guri laguntzea hausnarketak eta proposamenak eginez.

URRATSAK

1 BADUZU GURE BERRI

Jadanik badakizu nor garen eta zer helburu dugun.

Zure taldearekin lehen jarduera bat egitea proposatzen dizugu.

Zer izen jarriko zenioke legeari?

2 PARTE HARTUKO DUZU?

Zuregana eta zure taldera joanen gara dinamika bat egitera, zure hausnarketak eta proposamenak partekatu ditzazun.



Zer da zuretzat garrantzitsua? Agertu ezazu hori!

3 KONTUA ZERTAN DEN ERAKUTSIKO DIZUGU

Gutuna jasoko duzu, eta bertan adieraziko da nola ari garen zuen ideiak legera eramaten.



Izan ere, zuen ekarpenekin ari gara lanean.

4 LEGEA BUKATUTA DACO

Prestatzen lagundu diguzun legearen laburpena jasoko duzu.

Gainera, erakusketa bat eta festa bat antolatuko dugu zure parte-hartzea izan duen legearen sorrera ospatzeko, eta gonbidatuko zaitugu.

Eskerrik asko zure laguntzagatik!

BAZENEKIEN...?

Orain arte ez dugula inoiz foru lege bat sortu Nafarroako haur eta gazteek zuzenean parte hartuz, eta hau lehen aldia dela.

Legea erregela edo arau bat da, eta horren bidez gizarte harremanen alderdietako bat arautzen da, justiziarekin bat eginda.


Gure iritzia adieraztea eta, eragiten diguten gauza guztietan, iritzi hori aintzat hartua izatea funtsezko **eskubidea** da, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan jasoa.

Nafarroako Gobernua da Nafarroa gidatzen duten pertsona eta erakundeen multzoa.

Parlamentua, berriz, legeak onesteko ardura duten pertsonen multzoa.


Arautzea da bete beharreko arau batzuk ezartzea. Esate baterako, gidatzen dugunean, seinaleek arautzen dute noiz gelditu behar dugun edo zer abiaduratan ibili beharra dagoen.

Parte hartzeko prozesu batean, jendeak lan egiten du bere ikuspuntua aintzat har dadin, bere ingurunean (hiri, herri edo auzoan) eragiten duten erabakiak hartzen direnean.



Fitxa hau ez da derrigorrezkoa eta ez da izenik jarri behar. Honetarako balio du: legea idatzi behar dutenek zure beharrak eta proposamenak ezagutu eta horiek legean sartzeko aukera izan dezaten.

Idatz ezazu LETRA LARRIEKIN, zure hausnarketak eta proposamenak hartzen dituztenek ongi ulertu ditzaten.
Mila esker guri laguntzeagatik



ZERA NAIZ

Mutila
 Neska
 Nahiago dut esan

..... urte eta
ditut

hau da etxean darabilgun hizkuntza:
.....

Kontatu iezaguzu noiz sentitu zaren babesik eta segurtasunik gabe.

Azaldu, halaber, seguru eta babestua sentitu zaren egoeraren bat.

Idatz ezazu hodei bakoitzean hitz bat, horrela zergatik sentitu zinen adierazteko.



HAUXE PASATU ZAIT

GOGOETA EGITEN DUT

.....



Zer sentitzen duzu dinamikan ikasi duzunari buruz? Idatzi ondoren, laburtu ezazu hitz edo esaldi batekin.

Zein da proposamenik garrantzitsuena (edo garrantzitsuenak) legea idatzi behar dutenei bidaltzeko? Idatzi ondoren, laburtu ezazu proposamen bakoitza hitz edo esaldi batekin.




PROPOSATZEN DUT

.....

Fitxa hau ez da derrigorrezkoa eta ez da izenik jarri behar. Honetarako balio du: legea idatzi behar dutenek zure beharrak eta proposamenak ezagutu eta horiek legean sartzeko aukera izan dezaten.

Idatz ezazu LETRA LARRIEKIN, zure hausnarketak eta proposamenak hartzen dituztenek ongi ulertu ditzaten. Mila esker guri laguntzeagatik



ZERA NAIZ

Mutila / Gizona
 Neska / Emakumea
 Nahiago dut esan

.....
, urte eta
ditut

hauxe da adingabearekin dudana harremana:
.....

Kontatu ezazu adingabe baten eskubideak urratu zireneko pasarte bat, zure inguruan gertatua.

Kontatu, halaber, adingabe baten babesa eta segurtasuna indartu diren egoeraren bat.

Idatzi hodei bakoitzean hitz bat egoera bakoitza islatzen duena.

BIZI NAIZ

→

GOGOETA EGITEN DUT


← Zer sentitzen duzu dinamikan ikasi duzunari buruz? Idatzi ondoren, laburtu ezazu hitz edo esaldi batekin.

Zein da proposamenik garrantzitsuena (edo garrantzitsuenak) legea idatzi behar dutenei bidaltzeko? Idatzi ondoren, laburtu ezazu proposamen bakoitza hitz edo esaldi batekin.

PROPOSATZEN DUT

↓

SORTU ETA PARTE HARTU



MATERIALAK

- ▶ SORTU ETA PARTE HARTUren fotokopiak (1 eratzten den talde bakoitzeko)
- ▶ Komikia egiteko fotokopiak (multzo 1 pertsona bakoitzeko)
- ▶ Bakoitzaren fitxaren fotokopiak (pertsonako 1)
- ▶ Guraizeak eta itsasgarria
- ▶ Arkatz markatzaileak eta idazteko materiala

IRAUPENA

50 minututik ordu eta erdira

PARTE-HARTZAILEAK

GARAPENA

1. Banatu "SORTU ETA PARTE HARTU" jokia, taldeka (ahal dela) edo banaka.
2. Esaiezu jokoaren jarraibideak betetzeko. Jokoan, istorio bat sortuko dute; gero, horrekin zerikusia duten arazoez hausnartuko dute eta, azkenik, irtenbideak asmatuko.
3. Jolasten hasten diren bitartean, banatu itzazu komikia sortzeko fotokopiak.
4. Gogorazi iezaezu bakoitzak bere fitxan zerbait idatz dezakeela 3. urratsaren ondoren (arazoak atzemanak izanen dituzte, GOGOETA EGITEN DUT) eta 5.aren ondoren (irtenbideak asmatuak izanen dituzte, PROPOSATZEN DUT). Dagoen astiaren arabera, abiatu elkarrizketa taldeetan.
5. Komikian bakarka lan egingen dute.
6. Begiratu eta galderak egin komikiei buruz. Bukatu ahala, beren komikiez hitz egin dezatela bukatu dutenek.
7. Utzi tarte bat nork bere fitxa bukatzeko eta saioa ixteko.

OHARRAK






SORTU ETA PARTE HARTU



HAURREK, NERABEEK ETA FAMILIEK
PARTE HARTZEKO PROZESUA


 **Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua**



BAT




BI




Egizue, taldean, adingabe bat edo familia bat ageri den irudia.

HIRU




Biratu piezak jarraibideak irakurri ahal izateko.



ISTORIOAK OSATZEN

(IPUINAK ETA ANTZERKIA)



MATERIALAK

- ▶ Bakoitzaren fitxaren fotokopiak (pertsonako 1)
- ▶ Idazteko materiala (bolalumak, folioak)

IRAUPENA

Ordu eta erditik 2 ordura.

PARTE-HARTZAILEAK


GARAPENA

1. Kontatu istorio baten hasiera. Gure proposamena: *Ezagutzen duzun haur bat gaizki sentitzen da.*
2. Egin taldeak eta osatu istorioa. Gidatu taldeak galderak eginez.
3. Partekatu. Jokatu antzezlan gisa edo bihurtu ipuin.
4. Egin gogoetak taldeka eta bakarka.
5. Utzi tarte bat nork bere fitxa bukatzeko.

Zer gertatu da?
Zergatik sentitzen da gaizki?
Norekin izan du gatazka?
Zer pentsatzen du?
Zer sentitzen?
Zer entzuten du?
Zer ikusten?

OHARRAK

MAHAIKO SCAPE ROOMA



MATERIALAK

- ▶ Bakoitzaren fitxaren fotokopiak (pertsonako 1)
- ▶ SCAPE ROOM jokoaren fotokopiak (1 eratzen den talde bakoitzeko)
- ▶ Idazteko materiala (bolalumak, folioak)

IRAUPENA

Ordu eta erditik 2 ordura.

PARTE-HARTZAILEAK

GARAPENA

1. Kontatu istorio baten hasiera. Banatu SCAPE ROOMaren multzo bat talde bakoitzeko
Istoria: Ezagutzen duzun adingabe bat etxeko atarian agertu zaizu. Ez du hitzik esaten, eta paper bat dauka, "ez dakit zer egin" dioena.
2. Taldeka, pentsa dezatela hori nor izan daitekeen, eta mapa batean aukeratu dezatela leku bat gertatutakoaren arrastoak bilatzera joateko (ikastetxea, bizitokia, parkea, kalea...)
3. Aukeratutako lekuaren orrialdera joanen dira. Behatu eta hipotesiak eginen dituzte. Ikusten dutenari buruz mintzatuko dira. Irudi batzuetan letra, zenbaki eta ezkutuko formak daude: ausazkoak dira, baina, aurkitzen badituzte, hipotesiak sortzen laguntzen ahal diete.
4. Hipotesi berriak idatziko dituzte.
5. Taldeak hasierako istorioa berreginen du edo hasierako horri segida emanen dio. Beste leku bat aukeratuko du, eta urrats berak eginen.
6. Hipotesiak partekatuko ditugu. Hausnar dezagun: Nola lagunduko genuke edo nola gustatuko litzaiguke besteek guri laguntzea? Legeak nola ahalko luke gertatu den hori prebenitu edo horren aurrean babestu?

Helburua
ez da erantzun
zuzena aurkitzea,
baizik eta haiek beren
hipotesia sortzea
denbora-bitarte
mugatu batean.



**NOR DA?
ZER GERTATU
DA?**



Osatu istorioa. AUKERA EZAZU TOKI BAT arrasto gehiago bilatzera joateko. Hura erabiltzen duzunean, inguratu ezazu.



PARKEA



HIPOTESI BERRIAK

BIZITOKIA




HIPOTESI BERRIAK

KALEA



HIPOTESI BERRIAK



IKASTETXE EDO INSTITUTUA



HIPOTESI BERRIAK

KAIXO berriz ere

Haur eta nerabeentzako laguntza eta babesari... buruzko Foru Legearen proiektua hobetzeko prozesuan parte hartu duzu, eta **eskerrak eman nahi dizkizugu!**

Gainera, definitzen lagundu duzun lege-proiektu hori zertan den jakin dezazun nahi genuke.

URRATSAK

1 BADUZU GURE BERRI

2 PARTE HARTZEN DUZU

3 KONTUA ZERTAN DEN ERAKUSTEN DIZUGU

Gutun hau jaso duzu, eta bertan adierazten dugu nola ari garen zuen ideiak legera ekartzen.

Horrela ari gara zuen ekarpenekin lan egiten.

4 LEGEA BUKATUTA DAGO

Besta bat eginen dugu zure laguntzarekin prestatu den legearen zirriborroa aurkeztu dela ospatzeko, eta besta horretara gonbidatuko zaitugu.

Ondoko irudian, zuek legerako egin dituzuen **proposamenen laburpena** dago.

Batzuk jada jasota zeuden testuan, baina beste batzuk erantsi egin dira, edo hobetu, zuen ekarpenei esker. Eskerririk asko!

Hurrengo urratsa izanen da beste erakunde batzuen txostenak jasotzea eta interesa duten guztiekin partekatzea, urtearen bukaeran lege-proiektua **Parlamentuan** onetsiko den esperantzarekin.

IZAN GOGOAN!

Legeak araurik garrantzitsuenak dira **Konstituzioaren** ondoren; batzuetan zerbait egitera behartzen dute, beste batzuetan gauza jakin batzuk debekatzeko dituzte, edo gure eskubideak adierazten. Estatuak nahiz autonomia erkidegoek egiten dituzte legeak.

Parlamentua da legeak onesteko ardura duten pertsonen multzoa.

GLOSARIOA

Babes-sistema publikoa: Nafarroako Gobernuak duen zerbitzu-multzoa, haur eta nerabeen eskubideak bermatu eta defendatzeko dena.

Printzipioak: Arau unibertsal edo orokorrak.

Adingabe babestua: Haur eta nerabe gehienak beren familiek babesten dituzte, baina batzuek babes-sistema publikoaren laguntza behar dute.

Erantzunkidetasunaren araua: Babesgabetasun egoera baten berri duen pertsona orok berehala jardun behar du, adingabeek garatzeko eta integratzeko behar dituzten zaintzak berma daitezela.

Familia-harrera: aldi baterako babes-neurri bat da, zeinaren bidez adingabe baten zaintza pertsona edo familia bati ematen baitzaio, hura zaintzeko, berarekin edukitzeko, elikatzeaz eta hezteaz arduratzeko eta hari prestakuntza integrala emateko.

Guraso bakarreko familia: aita edo ama bakar batek eta seme-alaba batek edo gehiagok osatutako familia.

Errenta Bermatua: Laguntza ekonomikoa, pertsona edo familien oinarrizko beharrak asetzeko dena.

Digitalizazioa: teknologiaren bilakaera, ahalbidetzen diguna gailuak -esaterako, mugikorra, ordenagailua edo tableta- erabiliz ikastea, eta informazioa bilatu eta erraz partekatzea.

ADINGABEEN ESKUBIDEAK BERMATZEKO LAN EGITEN DUTEN ERAKUNDEAK, ETA ESKUBIDE HORIEK JASOTZEN DITUZTEN AGIRIAK

NBE: Nazio Batuen Erakundea da nazioarteko bakea eta segurtasuna zaintzeko dagoen erakunderik handiena.


HEK: Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989koa: Nazioarteko agiri horrek haurren eskubide guztiak jasotzen ditu, eta gobernuak horiek betetzera behartzen.

Ospitaleratutako haurren eskubideei buruzko Europako Gutuna: Europako Parlamentuak onetsia. Ospitaleratuta dauden adingabeen eskubideak biltzen ditu.

Eskubide Sozialetako Departamentua: pertsona talde hori arduratzen da, besteak beste, gizarte-gaiez, familiaz, eta haur eta nerabeen arretaz.

Espainiako Konstituzioa: Oinarrizko legea, estatuaren antolaketa politikoa eta pertsonen eskubide eta betebeharrak ezartzen dituena.

ABJLO: Adingabeen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoa: HEKren edukiak garatzeko Espainian onetsi zen legea.





ENTZUN ETA GOGORATU



Haur eta nerabeentzako laguntza eta babesari eta familia, adingabeen eskubideak eta berdintasuna sustatzeari buruzko Foru Legearen aurreproiektua

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



ENTZUN DIEZAIEGUN hurrei eta nerabeei!

ASKO dute esateko eta emateko.

Idatzi deigarrien gertatu zaizun hausnarketa haurren eta nerabeen partaidetza-prozesu honen inguruan.

Informazio gehiago nahi izanez gero, sartu hemen:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos/anteproyecto-ley-foral-atencion-proteccion-infancia-adolescencia>

jarri
itsasgarria
hemen


Orriz-markatzaila hau
prestatu orogarririk
gisa, gogoan izateko



EZ GAITEZEN AHAZTU!



BAT




BI



Tolestu eta
itsatsi ertzak

HIRU



Erabili eta eduki
beti eskura

Orri-markatzaile
hau prestatu
oroigarri gisa,
gogoan izateko

ebaki

tolestu

tolestu

HONETAZ PENTSATU DUZU NOIZBAIT?

Haurren eta nerabeen **hausnarketek**
eta **ideiek** honako hauetan laguntzen
digute:

erabakiak hartzen,

alternatibak planteatzen,

parte diren edo eragiten dieten
prozesuak eta **zerbitzuak** hobetzen.